

Eloribar - 1312. zenb.
XXI. urtea - 2024-01-12

TOKIKOM



BARREN



**25 urtean
Realarekin Jo Ta Sua**



ARAMBURU BITXIDENDA

URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU.
2024KO ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA
600 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

2. SARIA
600 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **1.164**

Zbkia.: **2.514**

Ordezko zbkia.: **855**

Ordezko zbkia.: **2.216**

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

HEGO EUSKAL HERRIA
ETA ESPAINIA:

42 €

IPAR EUSKAL HERRIA
ETA EUROPA:

59 €

EUROPATIK
KANPO:

75 €

Elgoibarko Izarrako
bazkideek:

34 €

Elgoibarko Izarrako
bazkideek:

46 €

Elgoibarko Izarrako
bazkideek:

60 €

Urtarrilaren 26an kobratuko dugu.

Eskuz ordaintzen duzuenok Elgoibarko Izarrako bulegotik pasa zaitezketen
(Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3- ezk.) edo kontuan egin ordainketa.
Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Urte berri on



“Ultraeskuinaren mamua uxatzea kostako zaigun honetan, kasik iraultzailea da Belen Estebanen mezua”

Bolo-bolo ibili da neguko oporretan aurkezpenik behar ez duen Belen Estebanen bideoa. Minutu erdi horretan telebistako kolaboratzaileak urte berri ona opa dio ikus-entzuleari hainbat hizkuntzatan, tartean euskaraz. Lehenengoan asmatu ez eta gauzak ondo egin nahi dituela esanez egin digu keinu euskaldunoi “Urte berri on” batekin. Berdin dio zer esan duen aurretik, zer datorren horren ostean. Nahikoak izan dira hiru hitz horiek guk gure ingurukoei bideoa birbidaltzeko.

Ultraeskuinaren mamua uxatzea kostako zaigun honetan, kasik iraultzailea da Belen Estebanen mezua. Izan ere, diskurtso zuzenera jo gabe, hamaika dira gure mugikor, ordenagailu eta telebistetan eskuineko balore katoliko, kontserbadore eta klasistak alaitasunez eta ia inozentziaz zabaltzen dituzten influencerrak. Guztiok dakigu zer ezkututzen duen “eduki apolitiko” terminoak, eta hala ere entretenimenduaren izenean ikusten (eta kontsumitzen) ditugu influencer apolitikoen docu-reality apolitikoak. Plataforma handien babesean, sare sozialetatik pantailetara pasa dira halako asko, egungo korrante abortista eta ateoaren aurrean euren bizimodu kasposoa “errebeldel” gisa aldarrikatuz.

Euskaraz urte berri ona opatzea ez da bere horretan eskuineko balore katoliko, kontserbadore eta klasisten aurka borrokatzea, baina panorama ilun honetan kultura oso bati irribarretxo bat ateratzeko gai izan da emakumea. Bakoitzak erabakiko du zeri eskaini nahi dion bere denbora. Gainontzean, jarrai dezakegu gure kontraesanak jan edota Belen Estebanen bideoa gorapatzen. Den-dena nahi digu batzuetan, eta zer gutxiarekin konformatzen garen besteetan.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Urtarrilaren 13an Bilbora

Urte dezente daramagu urtarrilean eta Bilbon euskal preso, exiliatu eta deportatuen eskubideen alde manifestazioa egiten. Urruntze politika bukatzea lortu dugu. Gaur egun espainiar estatuan dauden preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan daude, Frantzia dauden bederatzi preso izan ezik. Lorpen handia izan arren, salbuespen legedia aplikatzen zaie oraindik ere, eta debekatuta dute preso arruntek egin dezaketen ibilbidea. Legedi arruntaren aplikazioak euskal preso, exiliatu eta deportatuen etxeratzea posible egingo luke. Horregatik esaten dugu une honetan denok egin dezakegula zerbait, denok izan gaitetzkeela giltza, gorroto eta minaren fasea ixteko. Sufrimendu politikak alde batera utzi, biktima guztien aitortza eta erreparazioa aintzat hartuz.

Nahiko genuke hasi den 2024 urte hau erabakigarria izatea eta manifestazio gehiago egin behar ez izatea. Baina aurtengoan ere ezin dugu hutsik egin. Manifestazioa 16:00etan hasiko da La Casillatik. Elgoibartik irteera 15:00etan izango da Txankakuako geltokitik. Oraindik ere eman daiteke izena, Iturri, Jai Alai eta Lanbroa tabernetan.

Sare Elgoibar

Langabezia eta prekaritatea

"EAEn 3.019 langabetu gutxiago dago iazko urtearekin alderatuta eta afiliazio kopurua inoizko handiena izan da".

Berri hau eman digute komunikabideek urte hasierako egunetan. Baina zoritxarrez, egiaren parte bat baino ez da hor azaltzen digutena, eta komeni da gehiago jakitea non gauden ondo jakin dezagun. Egia esanda, langabezia igo egin da Gipuzkoan (0,1) eta Araban (0,8), eta jaitsi (0,1) Bizkaian.

Langabezia-tasa, gure eskualdean, %2,6 igo da lehengo urtetik (azaroko datuak), %10,1ean jartzeko (3.418 lagun). Elgoibarren %9,1 (iazko bukaeran %8). Erregistratutako kontratuak %27,7 gutxiago dira iazkoekin alderatuta. Horrek aditzera emango luke gure eskualdearen egoerak okerretik

jarraitzen duela eta egoera orokorra ez dela erraza.

Hala ere, gogoeta sakonena beste bat da, eta LAB sindikatuaren eskutik dator: Hala dio LABek: "Langabezia-tasak ez du ondo adierazten enpleguaren eta lan merkatuaren egoera, langileen bizimodua adierazteko, guk prekaritatearen indizea landu nahi dugu, eta horren arabera, 25-64 arteko langileen erdia egoera prekario batean bizi da, bizimodu duin bat egin ezinda". Zehazki %53,52a, langabezia, egoera inaktiboan, edo 1.400 eurotik beherako diru sarrerekin bizi da. Beraz, langabezia gutxitu, baina prekaritatea izurrite bihurtu da.

J.M.M

Esker mila

Giro bikaina aurten ere urteari agur esateko. Gabon zaharreko ferian hainbat postu, jendea non nahi, bertako produktu eta animalietan gozatzeko aukera paregabea... Aurten ere, Elgoibar Ikastolakoak Kalebarren plazan txosna jartzeko aukera izan genuen. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta bertan sortu zen giroa aparta izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Eskerrak emateko garaia da. Eskerrik asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta brigadako langileei, hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrik asko Armueta eta Ziarda harategiei, Eusko Labeldun saihetsa eskaintzeagatik. Manuel Amaro eta M^aJose Martini, kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan egindako lanagatik. Deuko Izarra banaketari, edari zein beste material batzuk eskaintzeagatik. LizagaSar-i bere sagardo eta sagar zukuarengatik, Nekane Altuberi apaingarriengatik, Jose Ramon Cabrerari argazkiengatik, Burgoa Somoza arraindegia izotza emateagatik, lanean egon zineten guztioi, eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe-eta.

Aurten ere, 100 pertsona baino gehiago izan garelako antolaketan eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. Esker mila eta bejondeizuela! Azkenik, gogorarazi nahi dugu txosnan jasotako dirua herri mailan antolatzen ditugun ekimenak finantzatzeko erabiliko dugula: pilota eguna eta Jose Gurrutxaga krosa alegia. Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

Elgoibar Ikastolako txosnako lantaldea



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Zaborra dagokion lekuan bota behar da:

"Aspaldian hondatuta zegoen zaborrontzia kendu zuten Mendaroko Trinitate kalean, ustez berria jartzeko, baina herritar honentzat, nonbait, gehiegi eskatzea da kalean beheraxeago duen zaborrontzia erabiltzea. Era berean, hortik gertu, zabor poltsak ere agertu dira egunotan berdegune batean. Horrenbeste kostatzen al da zaborra dagokion lekura eramatea?"



Txalo bat Elgoibarko Udalari, Eguberrietan antolatu dituen ekintza guztiengatik:

"Eguberrietako oporretan ia egunero egon dira ekitaldiak, eta eskerrak eman nahi dizkiot Udalari. Ia arratsaldero egon dira haurrentzako ikuskizunak eta etxeko txikiak pozik ibili dira. Eskerrik asko".



Txalo bat Mugertza Kroseko antolatzaileei:

"Beste behin ere Elgoibar goian utzi du Mugertza Kroseko lantaldeak. 900 korrikalari batu ziren domekan Mintxetan, eta sekulako ikuskizuna eman zuten. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, herritar asko igo ziren Mintxetara, eta denen artean borobildu zuten atletismoaren jaja. 80 urte bete ditu aurten Mugertza Krosak, eta horren atzean dagoen lana sekulakoa da. Txalo bat merezi duzue antolatzaile eta lanean aritzen zareten guztiok".



Eskerrik asko Gabonetan liburutegia zabalteagatik. "Ikasleok behin baino gehiagotan eskatu izan dugu ikasteko gune bat; aurten, Gabonetako oporretan, bai liburutegia, bai ikasketa gela izan ditugu ordutegi zabalarekin irekita. Mila esker!"

Adinekoen autonomia sustatzeko zerbitzua jarri du martxan Mendaroko Udalak, 'Bizi-bizi'

Kalteberatasun egoeran, bakardade arriskuan edo mendekotasunaren hasierako fasean dauden adinekoei eta haien zaintzaileei zuzendutako sozializazio eta errehabilitazio zerbitzua da *Bizi-bizi*, adinekoen bizi-kalitatea eta zahartze aktibo eta osasungarria sustatu nahi dituena. Martitzen eta eguenetan eskainiko du Mendaroko Udalak zerbitzu hori, Lagun Betikoak jubilatuen elkartean, urte osoan zehar, eta 10:30etik 13:30era arteko ordutegian.

Arlo psikologikoko, fisikoko eta gizarte arloko prestazioak eskainiko dituzte bertan. Batetik, ongizate emozionala eta gaitasun kognitibo eustea sustatzeko jarduerak egingo dituzte. Bestetik, ohitura osasungarri buruzko jarduerak proposatuko dizkiete, eta azkenik, erabiltzaileen harremanak eta sozializazioa sustatzeko baliagarri izan daitezkeen jolas-jarduerak planteatuko dituzte, besteak beste,



zinema, paseoak, kafe-solasaldiak eta taldeko jolas ludikoak.

Informazio gehiago nahi duenak Mendaroko Udaleko gizarte zerbitzuekin jarri behar du harremanetan 943 033 282 telefono zenbakira deituta edota gizartekintza@mendaro.eus helbidera idatzita.

Gaur, hilak 12, egingo dituzte odol ateratzeak Elgoibarren

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik jakinarazi dute, gaur, barikua, hilak 12, izango direla odol ateratzeak Elgoibarren, jubilatuen biltokian. 16:30etik 20:10era arituko dira erizainak lanean,

baina odola eman nahi duenak txanda hartu behar du aurrez, 623 328 408 telefono zenbakira deituta edo whatsapp idatzita. Txanda hartzeko 15:00etatik aurrera deitu behar da.

Zuhaitz landaketa egingo dute bihar, zapatua, Elgoibarren



Baso Biziak elkartetik eta Lurgaia fundaziotik egin dute deialdia, biharko. 09:00etan elkartuko dira Mintxetako aparkalekuan, handik zuhaitzak landatuko dituzten sailera joateko. Antolatzaileek mendiko oinetakoak eramateko eskatu dute, bai eta ura eta jateko zerbitzu ere. Erremintak, baina, beraiek jarriko dituzte. Interesatuak izena eman behar dute antolakuntza lanak errazteko. Honako helbide honetara idatzi behar da horretarako, izena, abizena, adina eta telefono zenbakia zehaztuta: info@elgoibarkobasobiziak.org. Gaian LandaketaU13 jartzeko eskatu dute.

Maltzagan ipiniko dute Elgoibar eta Eibar arteko bidegorriko komun publikoa

Elgoibarko Udalak 2021ean erosi zuen komuna, baina geldi izan dute, hariak eta Foru Aldundiko Mugikortasun Sailarekin eta Eibarko Udalarekin komuna non jarri eta beste zenbait kontu erabaki dituzten arte.

Elgoibarko Udalak bidegorriaren hasieran jarriko zutela jakinarazi zuen 2021eko ekainean, baina azkenean, Maltzagan ipiniko dute, bi herrien artean. Izan ere, Eibarko eta Elgoibarko Udalek hitzarmen bat sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ekipamendu hau han jartzeko. Obra zibila eta komuna ipintzea Eibarko Udalari dagozkio. Lizitazioa atera dute obra eta gaur da aurkezteko azken eguna. Aurrekontua 96.768,66 eurokoa da (BEZ barne) eta gauzatzeko epea zortzi astekoa. Bestalde, ekipamendua hornitzea Elgoibarko Udalaren kontura izango da, dagoeneko egina daukana. Eibarko Udalak bankuak ere jarri zituen Maltzagan, eta komun autogarbigarria ere inguru horretan ipiniko dute. Gainera, azken asteetan bideko argiteria-sarea instalatzen dihardute Maltzaga eta Andikano artean. Joan den irailean hasi zituzten lanak urtarrilaren amaierarako bukatuta egotea aurreikusten du Elgoibarko Udalak.

Gabonetako zozketako zenbaki saridunen berri eman du Txankakuak

Martitzenean egin zuen Txankakuak Gabonetako zozketa eta jakinarazi ditu zenbaki saridunak. Guztira, 1.800 euro banatu ditu Elgoibarko merkatarien elkarteak, Gabonetan elkartearen baitako establezimenduetan erosketak egin zituztenen artean. 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi banatu ditu eta hauek dira zenbaki irabazleak.

500 euroko saria eskuratu dutenak:

- 26.778 (Ordezkoa: 69.473)
- 66.368 (Ordezkoa: 24.559).

100 euroko saria eskuratu dutenak:

- 54.171 (Ordezkoa: 09.512)
- 89.676 (Ordezkoa: 23.827)
- 68.363 (Ordezkoa: 89.819)
- 52.403 (Ordezkoa: 32.419)
- 48.543 (Ordezkoa: 84.918I)
- 08.213 (Ordezkoa: 92.530)
- 35.671 (Ordezkoa: 72.677)
- 43.078 (Ordezkoa: 31.844)



'La Ertzaintza que viene' liburua aurkeztuko du Elgoibarren Ahoztar Zelaietak, hilaren 18an

Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da Ahoztar Zelaieta urtarrilaren 18an (18:30) *La Ertzaintza que viene* bere azken liburua aurkeztzen. Azken hamarkadan Ertzaintzak darabilen teknologia aurreratuen inguruan gogoeta egingo du Zelaietak. Haren esanetan, adimen artifiziala, algoritmoak, komunikazioen esku-hartzea, identifikazio biometrikoa edo abangoardiako bideozaintza-sistemak baliatzen ditu Ertzaintzak eta teknika horiek eragin nabarmena dute giza eskubideetan eta askatasun zibiletan. Modernizazio hori, gainera, zaintzaren industria pribatuko erraldoien eskutik gauzatzen ari dela salatu du Zelaietak, "askotan aholkularitza-empresa eraginkorren bitartez, eta euskal eta espainiar kargu politikoen ate birakarien kasu ugariarekin". Labur esanda, Ertzaintzaren garapen teknologikoari eta "haren opakutasunari" buruz jardungo da.

Legaldi plana herritarrei aurkeztuko die Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak prest du 2023-2027 Legegintzaldi Plana. Datozen lau urteetarako lehentasunak, helburuak eta udal-ekintzak zehaztuko dituen gida estrategikoa jaso dute txosten batean, eta herritarrei aurkeztuko diete orain. Dokumentuak 91 ekintza zehazten ditu, 28 helburutan eta sei ildo estrategikotan multzokatuta. Ekintza horiek guztiak Elgoibar "are leku oparoagoa eta bizigarriagoa" izateko diseinatuta daudela adierazi du Maialen Gurrutxaga alkateak. Dokumentua Elgoibarko etxe guztietara banatuko dute, baina horrez gain, hiru aurkezpen bilera egingo dituzte, herritarren kezka eta zalantzak aurrez aurre azaltzeko. Datorren astean egingo dute lehenengoa, hilaren 16an, Jubilatuen Biltokian, 16:00etan. Ondorengo biak urtarrilaren 24an eta 31n izango dira, 19:00etan, Aita Agirreko areto nagusian.

Elgoibarko EHBildutik salatu dute bi mila elgoibartar baino gehiago ordezkatzen dituen



eta zazpi zinegotzi dituen taldea izan arren, ez dutela legegintzaldi plan honen berri izan: "Nahiz eta PNV-PSEk Udalaren plana deitu, Udalbatzak ez du horren berririk eduki ezta eztabaidatu ere. Beraz, udal plana baino gehiago alderdi plana da. Alderdien asmoak Udalarekin parekatzea alderdikeria baino ez da".

Go!azen 10.0 ikuskizunaren bigarren emanaldi bat iragarri du Elgoibarko Udalak



Otsailaren 23rako Go!azen ikuskizunaren beste kontzertu bat lotu du Elgoibarko Udalak, 17:00etako iragarria zuen saiorako sarrerak denborra errekorrean agortu direla ikusita. 19:00etan izango da bigarren saio hori eta, bihar, urtarrilaren 13an, jarriko dituzte salgai sarrerak, 12:00etan. Herriko Antzokiaren webgunean eskuratu ahal izango dira online (herrikoantzokia.eus), edota Herriko Antzokiko leihatilan, 18:15etik 20:45era bitartean.

Ingurumenarekiko ezagutza eta errespetua sustatzeko zinema zikloa antolatu dute Elgoibarren

Ingurumenarekiko ezagutza eta errespetua sustatzeko helburuarekin *Natur Zinema* izeneko zinema zikloa antolatu dute herriko hainbat eragilek: Elgoibarko Baso Biziak, Karakate Bizirik, Morkaikok, Ongarri Zine Klubak eta Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak.

Eguaztenean eman zuten lehenengo filma, eta datozen hilabeteetan beste bi emango dituzte: otsailaren 7an *Honeyland* filma emango dute, eta martxoaren 13an amaituko da zikloa, *Ganado o desierto* filmarekin. Saioak Elgoibarko Herriko Antzokian izango dira, 21:00etan.



JoTaSua peñako kideetako batzuk erakusketa itxi zuten egunean.

25 URTE KOLORE TXURI-URDINAK BATUTA

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Jo Ta Sua

Realarekiko pasioa dute komunean eta orain dela 25 urte batzea erabaki zuten. Anoetan tribuna berri bat egin zuten lehenengo eta bigarren solairuen artean, eta une egokia iruditu zitzairen ordura arte beren kontura joaten ziren guztiak batu eta tribuna berri horretara lekualdatzeko. Hala, Jo Ta Sua peña sortu zuten, 40 bat bazkiderekin. 25 urte bete berri ditu taldeak, eta gaur egun 60 bat bazkide ditu.

Jo Ta Sua Realeko peñak 25 urte bete ditu, eta horren harira hainbat ekintza prestatu dituzte. Eguberrietan argazki erakusketa antolatu zuten, azken 25 urte hauen erreposoa egiteko. Gai multzokatu zituzten argazkiak, eta milaka oroitzen ekarri zituzten gogora. Tartean, peñako hildakoak ere oroitu zituzten, Mikel de Pablo, Manu Osoro eta Jon Salegi *Sarobe* mendararra. Argazkiekin batera, 25 urte hauetan Realak erabilitako ekipazioen kamisetak ere jarri zituzten ikusgai, eta kamiseta bakoitzak zeukan istorioa ere jaso zuten. Han zeuden, esaterako, Agirretxek Vallecasen bi gol sartu ostean publikora bota eta elgoibartar batek hartutako kamiseta, Europako txapelketaren batean erabilitako beste kamiseta bat, jokalariek oparitutakoak... 25 kamisetaren bidez, 25 istorio esanguratsu kontatu zituzten. Mahai-inguru bat egitea ere

aurreikusi dute 25 urte hauetan Realean jokatu duten elgoibartarrekin. Markel Bergara, Zuhaitz Gurrutxaga, Evelin Santos eta Imanol Agirretxe lotu nahi dituzte, baina oraindik ez daukate data zehatzik. Datorren urtarrilaren 20an, bestalde, bazkaria egingo dute Sigma jatetxean, eta egun horretarako hainbat sorpresa iragarri dituzte.

25 urte atzera egin behar dugu Jo Ta Suaren sorreraren arrazoia bilatzeko. 1998a zen, eta Elgoibartik jende pila bat joaten zen Anoetara. Zale horiek guztiak elkarrekin joatea polita izango zela pentsatu zuten, eta Anoetan tribuna berria egin zutenean sortu zitzairen denak batera jartzeko aukera. Peña bat izanda errazagoa zen aukera hori baliatzea. Agustin Alonso *Kaiser*, Anton Iranzo, Hector Garrido eta Manu Vila izan ziren ideia haren sustatzaile nagusiak. 40 bat bazkiderekin hasi zuen ibilbidea Jo Ta Sua peñak.



Gaur egun 60 bat bazkide dira, eta Anoetan egin duten azken obraren ondorioz, berriz ere lekuz aldatuta daude. Aitor Zabaleta gunearen alboan jartzen dira, denak batera. Peña irekia da, eta nahi duen orok eman dezake izena. Bazkide egiteko, 50 euroko kuota ordaindu behar da. Egoitz Gurrutxaga eta Mikel Arzamendi Jo Ta Sua peñako zuzendaritzako kideak dira, eta eurentzako elgoibartarrak denak elkarrekin tribuna berean egotea oso polita da: "Seme-alabekin joaten gara asko, adin antzekoa daukate eta beraien artean ere sortu da Realarekiko sentimendua. Gu umeak ginenean ez geneukan horrelakorik. Gure artean, gainera, txartelak elkarbanatzen ditugu norbaitek joaterik ez daukanean, edo umeak bidali ditzakegu lagunentzako batekin...". Peña bateko kide izateak norberaren pasioa herritarrekin konpartitzeko aukera ematen du, baina abantailarik handiena Realak kanpoan jokatzen duenean sarrerak lortzeko aukera errazten duela da. Hala ere, gero eta zailagoa da. "Garai batean Gijon edo Santanderrera zale

**Peña irekia da Jo Ta Sua,
baina bazkide egiteko,
50 euroko kuota
ordaindu behar da.**

pila bat joaten ginen, eta abonatu izan gabe ere sarrerak lortzeko aukera egoten zen, baina gaur egun oso zaila da. Asteburu honetan, esaterako, derbia jokatuko dute Bilbon Athletic-en kontra, eta Realak hiru sarrera bakarrik eman dizkigu". Horrelakoetan zozketa egin behar izaten dute.

25 urte hauetan une gozo eta gaziak bizitzea tokatu zaie. Ez dute ahaztuko Real Liga irabaztear egon zen denboraldia. 2002-2003 denboraldia zen, eta Vigora joan ziren Ligako azken aurreko jardunaldian, Celtaren kontrako partida ikustera. Irabaziz gero, Ligako txapelkun





izango zen talde txuri-urdina, baina galdu egin zuten. Hala ere, liga irabazi balute moduan ospatu zuten Realzaleek. Europako partidak ere ilusioz bizi dituzte. Egoitz Gurrutxagak, esaterako, ez du erraz ahaztuko Manchesterrera Real ikustera eginiko bidaia. "Sekulakoa izan zen; oso oroitzapen ona daukat". Azken urteetan ere ondo dabil Real, eta gozatzen ari dira, baina maila galdu zueneko ere gogoan dute: "Gogorra izan zen bigarren mailara jaitea. Denok uste genuen, gainera, berehala igoko zela, baina hiru denboraldi behar izan zituen lehenengo mailara igotzeko". Une gogorretan ere, Jo Ta Sua beti egon da Realarekin. "Orduan ere autobuskadak joaten ginen Real animatzera, bai Anoetara eta baita kanpora ere. Orduan lekua soberan izaten genuen, bai aparkatzeko eta baita harmailetan ere!". Autobusen antolakuntzaz ari direla Agustin Alonso *Kaiser* eta Lanbroa tabernako familia osoa nabarmendu dituzte, urteetan egindako lanagatik: "Orain dena aplikazio digital baten bidez egiten da, baina lehen Lanbroak kudeatzen

zuen dena. Sekulako lana egiten zuten". Gaur egun hiru autobus joaten dira Elgoibartik Anoetara.

Aurtengo denboraldian gozatzen ari dira Realzaleak, eta horien artean JoTaSua peñakoak: "Partidaren bat berdinduta amaitzen duenean gure seme-alabak burumakur etxeratzen dira askotan, eta esaten diegu ez kexatzeko, beraiek ez dakitela benetan zer den Realarekin sufritzea". Gozamina gozamen, Jo Ta Sua peñakoek badute amets bat: "Titulu handiren bat irabaztea". Pandemian Espainiako Errege Kopa irabazi zuen Realak. 2019-20 denboraldian Errege Kopako finalera iritsi zen talde txuri-urdina. Athleticen kontra jokatu zuen finala Sevillan, baina pandemiaren eraginez publikorik gabe jokatu zen partida hura: "Pena izan zen partidara ezin joatea eta lagunekin batera ezin ospatzea garaipena. Bakoitzak bere aldetik bizi behar izan genuen". Titulu bat irabazi eta lagunenguz inguratuta bizitzea nahi dute: "Zaila dela badakigu, baina ez dugu itxaropena galduko".



IBAN DEL CAMPO

Zinemagilea

✍️ Ainara Argoitia / 🎧 Zinelab

Zinemagilea da Iban del Campo (Arrasate, 1971), eta Ikus-entzunezko Komunikazioko graduko eskolak ematen ditu Mondragon Unibertsitatean. 2008az geroztik Huhezinema jaialdiaren koordinatzailea ere bada, eta Limbus Filmak ekoiztetxe propioa dauka, Silvia Rey zinemagilearekin batera. Dozenaka film sortu ditu azkeneko urteotan, eta sari eta aipamen bereziak ere jaso ditu, besteak beste Donostiako Zinemaldian. Bera da Mendaroko Lumiere Minutua tailerraren sustatzaile nagusia, Uztargi tabernaren eta Galle-tiak gozotegiaren laguntzarekin. Urtarrilaren 20an egingo dute lehiaketa eta hilaren 18ra arteko epea dago izena emateko.

Parisko Nouvelle Sorbonne unibertsitatean egin zenuen doktoretza, Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean dokumentalgintzan masterra, eta geroztik hara-hona ibili zara munduan, zinemagintzan. Zerk ekarri zaitu Mendarora?

Kasualitateak. Donostian bizi izan naiz oraintsu arte, baina azkeneko urteotan erabat aldatzen ari da hiria, turismo negozioren mesedetan. Etxe bat alokairuan hartzea izugarri garestia da han, eta ia ezin da kafe bat hartzera tabernara jaitsi ere. Gogaitzen hasita nengoen, eta aldaketa bila ari nintzela, Mendarora etortzeko proposamena egin zidan lagun batek. Aurrez sekula egon gabea nintzen hemen, baina Arrasatetik gertuago nengoen hona etorrira, eta aldi berean, itsasotik pauso batera ere bai, itsasoaren influentziapean nagoelako orain, olatuak hartzeko dudak afizio horregatik. Eta bat-batean, hemen nago, lasaitasun ederrean, Donostiako kaos turistiko horretatik aparte. Zinema bakarrik falta zaio Mendarori! Uztargi tabernako Juli [Julian Segundo] ezagutu nuen iritsi eta bat, eta berehala egin genuen harremana, kultur kontuak gustuko dituelako berak ere. Konturatu nintzen jendea mugiarazteko eta estimulatze gaitasuna zuela Julik, eta hasi ginen elkarrekin zerbait sortzeko ideari bueltaka. Proiektu ezberdinez hitz egin genuen eta honi eman genion forma aurrena.



■ ■ *Jolasteko eta
esperimentatzeko bidea
eman nahi dugu
Lumiere Minutuan* ■ ■

Begira Elkartearekin egin daukat pare bat urtean tailer hau, Bilbon.

Tailerra, lehiaketa... Zer da zehazki Lumiere Minutua?

Larunbat goiz baterako plana da proposatu duguna, lau bat orduko tailer praktikoa. Zinemaren aitzindaritzat ditugun Lumiere anaiek zer egin zuten ezagutaraztea da helburua.

Zinemaren historian zehar bidaiak antzeko bat egingo dugu eta sorreratik gaur arte izan diren joera eta estilo ezberdinen errepaso azkar bat egingo dugu. Ordubetik inguruko sarrera-hitzaldi bat egitea daukat pentsatuta, eta saiatuko naiz datozenen irudimena pizten, adibide batzukin lagunduta. Ondoren, gaur egun horrenbesteko dependentzia sortzen diguten eskuko telefono horiek sormenerako tresna gisa erabiltzen saiatuko gara. Lumiere anaien estiloan, minutu bateko grabazioak egitea eskatuko diegu tailerlean parte hartuko dutenei; hau da, toma bakar batean, editatu gabe, gehienez minutu bateko iraupena duen istorio bat grabatzea. Pare bat orduko tartea izango dute horretarako, eta ondoren, grabazio guztiak proiektatu eta taldean komentatuko ditugu. Konfiantza giro horretan barre, negar edo behar dena egingo dugu. Uztargi tabernan egingo dugu tailerra. Sariketa itxura eman nahi izan diogu tailerrari, eta, bai, sariren batzuk izango dira; baita mokadua ere, Uztargi tabernaren eta Galle-tiak gozotegiaren eskutik.

Teknologia berriek, eta bereziki, eskuko telefonoaren erabilera eragina izan dute gure kontsumo ohituretan. Minutu gutxiko bideoetara egin gara, baina ikustea eta sortzea ez da gauza bera. Aholkuren bat emango al zeniguke Lumiere Minutu bat grabatzeko? Zeintzuk dira baldintzak?

Grabaziorako gaia librea izango da, baina izena ematen dutenen arabera zehaztuko ditugu gero oinarriak edo joko-arauak. Pertsona batzuek behar izaten dute norbaitek gidatzea; behar izaten dute baldintzak ahalik eta zehatzenak izatea, eta beste batzuk, aldiz, erosoago sentitzen dira askatasunean. Jolasteko eta esperimintatzeko bidea eman nahi dugu Lumiere Minutuan, eta esango nieke begiratzeko ingurura eta saiatzeko kontatu nahi luketen hori kontatzen.

25 lagunentzako lekua izango da gehienez. Zeini zuzenduta dago ekimen hau?

Eskuko telefonoa erabiltzeko gai den edonork parte hartu dezake, adina edozein duela ere. 25 laguneko muga jarri dugu Uztargi tabernan egingo dugulako tailerra. Lumiere anaiek eurek ere taberna batean egin zuten beren estreinako zinema emanaldia, Parisen, eta guk eutsiko diogu horri [1985eko abenduaren 28an izan zen, Grand Cafe tabernan].

"Gehiagotan galdetu beharko genioke gure buruari zerk motibatzen gaituen; sormena aktibatu beharra badugu, bai"

Irudimena landu eta sormena sustatzea jarri dituzue helburutzat. Biak ere behar baino gutxiago lantzen direla irakurri izan dugu, baina, aldi berean, sare sozialetako plataformetan-eta sekulako lanak ikusten dizkiegu gazteei. Unibertsitateko irakasle izanda, zer da ikusten duzuna?

Zaila da orokortzea. Hain doa dena azkar, zaila zaigula gauzak aztertzeko denbora hartzea ere. Duela 50 urteko kontuak ulertu ezinda gaude oraindik, eta zaila da erantzuten, baina esango nizuke halako homogeneizazio bat ikusten dudala Interneten. Marketin enpresa handiek nahi dutena kontsumitzen du gaur jendeak zoritxarrez; haiek bideratutako produktuak dira ikusienak, eta bidean produktu eta aukera on asko galtzen dira. Algoritmoen meneko gara. Batetik esango nizuke hori, eta bestetik, halako jarrera pasibo bat nagusitu dela gizartean. Pantaila kontsumoa hain da handia, askotan zaila zaigula kontsumoari galga jarri eta geure barrura begiratzeko tartea hartzea. Jaso eta jaso ari gara, kontsumitu eta kontsumitu, sortzeko tarterik hartu gabe. Gehiagotan galdetu beharko genioke gure buruari zerk motibatzen gaituen; sormena aktibatu beharra badugu, bai.

Zer beste dabilkizu orain eskuartean?

Batetik, Fertz musikariaren bideoak aurkeztekoak gara laster, eta bestetik, badaukate beste lagun batzuekin batera egin dugun beste lan bat ere argitaratzeko gertu, baina ezin dizut gehiagorik aurreratu, iragarri gabe dugulako.

Sormena askatzeko aspertzen laga behar omen zaio irudimenari. Ez du ematen zuk aspertzeko tarte handirik daukazunik.

Ez ba! Olatuak hartzera joaten naiz deskonektatzeko, baina ez, hori ez da aspertzea. Hala ere, surfeatzeko eskuko telefonoa lehorrean laga beharra dago derrigor, eta hori beti da osasungarria. Horixe gomendatzen dizuet. Itsasoa ikustera joateko eta eskuko telefonoa ondo kargatuta etortzeko urtarrilaren 20an Mendaron emango dugun tailerrera ■



CHEBET ETA AREGAWI AZKARRENAK

✍️ Asier Orbea

Mugertza krolean parte hartzen duten saltakarien mailaren adierazgarria da egungo munduko kros txapeldunak hirugarren saiakeran lortu duela garaipena. Bi alditan txapeldunorde izan eta gero (2020an eta 2022an), Beatrice Chebetek (Kenya, 2000) lortu du Elgoibar izena brodatua duen txapela janztea. Chebetek 2022ko Mugertza krosa irabazi zuen Edinah Jebitok herrikidea izan zuen aurkari nagusia. Grace Loibachek osatu zuen podiuma eta hiru atleta ingeles sailkatu ziren laugarren postutik seigarrengora: Niamh Brown, Sarah Astin eta Lauren Hall. Gizonezkoen lasterketan Soufiane El Bakkali marokoarra zen izar handiena, txapeldun olinpikoa eta birritan munduko txapelduna izana baita 3.000 metro oztopoetako lasterketan. Krolean, baina, Berihu Aregawik (Etiopia, 2001) ditu emaitzarik onenak, etiopiarra txapeldunorde izan baitzen 2023ko Munduko Kros Txapelketan, Australian. Horrez gain, Tokikoko Olinpiar Jokoetan laugarren egin zuen 10.000 metrokoan, Mugertza krosak duen antzerako distantzian. Senior gizonezkoen mailan 9.707 metro ditu ibilbideak. Aregawik bost segundoko alde ateratzen duen Rodrigue Kwizerari (Burundi, 1999) eta zazpi segundokoa El Bakkaliri. Argazki gehiago ikusteko: barren.eus









ANE ELORDI

Korrikako koordinatzailea

 TOKIKOM

Martxoaren 14an abiatuko da Korrika Irundik, eta martxoaren 24an iritsiko da Baionara. Hamaika egun euskararen alde korrika, eta, politikoki, ari dira aurtengo edizioaren xehetasunak ezagutzen. Atzo aurkeztu zuten 23. edizioaren ibilbidea; eta martxoaren 20an eguerdian iritsiko da Elgoibarrera, ondoren Mendarorantz jarraitzeko. Korrikaren koordinatzaile Ane Elordi elkarrizketatu du TOKIKOMek. Elkarrizketa osoa bideoan *barren.eus* atarian.



“Bada momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko”

Korrika... nola definituko zenuke?

Korrika zerbait bada, nire ustez, emozio-jai bat da, baina ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan gelditzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik handiena da. Gizarte osoa mugiarazten du, eta muga bakarra hizkuntza bera da. Oso ekimen potentea da.

'Harro herri' lelopean egingo da; azaldu iezaguzu hitz pare horren esanahia.

Batetik azpimarratu nahi izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Aldi berean, lehen esan dut Korrika aldarrikapenerako egitasmoa dela, eta ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestaldi hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz *Harro herri* sortzeko. Orduan, gutako bakoitza nahiz eta ezberdina izan, bakoitzak bere iritzia, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntza berak batuko gaitu. Euskaraz batuta sortuko dugu komunitatea *Harro herri*.

Aurtengo omendua Azterketak Euskaraz kolektiboa da. Baxoa –Frantziako Estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua– eta Brebeta –Frantziako Gobernuak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma–; bi azterketa horiek euskaraz egiteko borrokan dabiltzan ikasleak omenduko dituzue.

Sarri iruditzen zaigu Azterketak Euskaraz kolektiboaren borroka hori ez dela hegoaldean askorik ikusten edo ez dela ezagutzen. Eta horregatik iruditu zaigu momentu ona dela eurei aitortza egiteko, borroka luzea delako. 25 urte edo gehiago izango dira hasierako ikasle haiek planto egiten hasi zirenetik; hizkuntza eskubideen aldeko aldarrikapenen borrokan hasi zirenetik. Eta 25 urte hauetan, belaunaldiz belaunaldi transmititu da borroka eta lortu dituzte proba batzuk euskaraz egitea. Azken hilabeteetan atzerapausoa ere eman da, ez dituztelako galderak euskaraz jasoko, baina ikusten dugu lanean ari direla, eta horregatik aitortu nahi izan dugu egunerokoan egiten duten borroka hori. Gainera, egitasmoaren sustatzaileak ikasleak dira, momentu honetan

direnak edo izan direnak. Inguruan badituzte irakasleak, Seaskaren inguruan mugitzen diren gainontzeko kideak eta gurasoak. Baina gaztetxo horiek izatea egitasmoaren bultzatzaileak oso interesgarria iruditzen zaigu.

Garrantzitsua izaten da kantua, ekimenaren bidelagun izaten delako eta jende askorengana heltzen delako. Aurtengoa Maite Arroitauregi 'Mursego' musikariak ondu du; eta bideoklipa, berriz, Amaia Badiolak.

Korrika batzordean aukeratu genuen Mursego izatea kantaren egilea, eta jakin genuen zerbait berezia izango zela. Emaizta ikustearekin batera, pozarren jarri ginen. Uste dugu zenbat eta gehiago entzun, orduan eta gehiago gustatuko den kantua dela, eta Korrika egiteko, primerakoa.

Aurtengo ibilbideari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?

Aurtengoa Irundik abiatuko da eta Hondarribiraino joango da. Adibidez, hor joan-etorria, ez dago aukera askorik. Eta gero, Ipar Euskal Herrira sartuko da. Zeharkatuko du Ipar Euskal Herri osoa eta Zuberoatik Nafarroara joango da. Azken edizioetako joera bada Erribera inguruan asteburua egitea. Gainera, Euskal Herriko talde, elkarte eta lagun asko batzen dira inguru horretan Korrikaz gozatzeko. Badelako beste modu bat norberaren herrian bai, baina beste leku batzuetara hurbiltzea ere. Gero, pixkanaka gorantz joango da: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia... Nabarmentzekoa da, adibidez, aspaldi Durangaldean ez dela Mañaritik igaro Korrika eta aurten pasatuko dela, Urkiolan gora egiteko. Elantxobetik ere pasatuko da. Horrelako keinutxoak egin dira.

Eskuz esku eta kilometroz kilometro lekukoa ematen dute korrikalariak eta euskaldun ezagun batek idatzitako mezua gordetzen da barruan. Zer da mezu horren bitartez bilatu nahi izaten dena?

Lekukoak barruan eramaten duen mezua berezia da. Gainera, sortzen da halako emozio-intriga hori behin lekuko barruan sartzen denean ea nork idatzi duen jakiteko. Kinielak ere egiten dira lagunaren artean. Korrika edizio osoa biribiltzea bilatzen dugu guk horrekin. Sarri esaten dugu martxoaren 14tik 24ra dela Korrika, baina gu

azaroaren 16an Korrika aurkeztetik gatoz, bitartean eskaintza kulturala itzela izan da, Korrika beka ere badaukagu, kantua ezagutarazi da, dokumentala aurkeztuko da... Hori guztia ere bada Korrika guretat. Guk sei hilabeteko ziklo moduan bizi dugu, eta mezu hori orain arteko guztia biribiltzeko pastelaren goiko txokolatetxoa dela esan daiteke.

Bi urtez behin, hamaika egun eta hamar gau lasterka. Eta gero, zer? Zertarako baliatu beharko litzateke Korrikak bistaratutako indarra?

Kezka hori guk ere izaten dugu. Horretan badugu lana eta erronka. Lehen esan dudan bezala, azaroaren 4an egon zen indar agerraldi bat; herriak erantzun egin zuen. Orain, Korrika dator, eta espero dugu herriak berriro ere erantzutea. Gero etorriko da Euskaraldia. Guztion artean asmatu beharko dugu zikloka aritzeko indar hori metatu eta erabiltzeko modua.

Eta ekonomikoki, zenbateraino da garrantzitsua Korrika AEKrentzat?

1980an Korrika sortu zenetik helburuek berberak izaten jarraitzen dute. Gaur egun AEK-k 600 AEK-kide ditu eta 100 euskaltegitik gora Ipar eta Hego Euskal Herrian banatuta, nazio mailan aritzen garelako, eta Korrikatik jasotako baliabide horiek eguneroko lanerako erabiltzen ditugu. Gure lana bada euskara-eskolak ematea, ezagunena dena, baina, horretaz gain, praktika egitasmoak ditugu, aholkularitzak eta beste hainbat zerbitzu. Horiek guztiak patxadaz emateko eta zerbitzu egokia bermatzeko erabiltzen da diru hori.

1980an egin zen lehen Korrika, Oñatitik Bilbora. 22 Korrika eta 44 urte igaro dira ordutik. Zertan egin dugu aurrera? Eta alderantziz, zertan atzera?

Hasierako irudietan ikusten da oso jende gutxi, leku askotan pertsona bakarra... Gaur egun, lortu dugu Korrika ezaguna izatea Euskal Herri osoan, eta arazo horiek ez ditugu. Egia da babesaren geroz eta handiagoa dela sektoreetatik. Pozgarria da, Korrika hazten joan den ekimena izan delako. Atzera egin dugu? Atzera egin dela esatea ez dakit egokia den, baina bai presente izan behar dugula jai kutsu hori aldarrikapenarekin batera etortzen dela; Ezin dela Korrika jai soil bat bakarrik izan.

OPARIZ BETETA ETORRI DIRA ERREGE MAGOAK

👉 Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia - Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus






'Barren.eus' webgune berria estreinatuko dugu datorren astean, sakelako telefonoei begira

Azken urteotan, aldatu egin da Interneten nabigatzeko modua. Gero eta gehiago [irakurleen %70 inguru], eskuko telefono bidez sartzen dira irakurleak gure albisteetara, eta horregatik egokituko dugu, hein handi batean, *Barren.eus* webgunea, telefonotik errazago nabigatzeko. Webgune berriua bailarako euskarazko komunikabideekin elkarlanean garatzen dihardugun prozesuaren fruitua da, eta pauso koalatiboa suposatuko du bailarako eta Euskal Herriko tokiko komunikabideekiko elkarlanean. Izan ere, hemendik aurrera, Debabarreneko lau agerkari digitalek Tokikomen plataforma digital bateratuaren bitartez funtzionatuko dute [CodeSyntax enpresa eibartarrak garatu du], eta aldi berean, erreminta bera konpartituko dute beste 27 komunikabiderekin. Ermuko *Drogeteniturri.eus*, Soroluzeko *Plaentxia.eus* eta Debako *Berriketan.eus* dira BARRENEKIN batera jauzi hau emango dutenak. Bailaran plataforma hau ezartzeko inbertsioa bailarako udal guztien laguntzari esker finantzatu dugu, eta helburua zera da: komunikabideon Interneteko jardunean pauso koalatiboa ematea.

Plataformaren indargune nagusiak

Sareko edizioa duintasunez eta punta-puntako teknologiaz sortzeko pentsatutako tresna da plataforma digitala, eta ezaugarri nagusienetakoa da erabiltzen duten toki komunikabideek teknologia, edukiak eta estrategia digitala



partekatzen dutela, eta inbertsio txikiak eginda, erabiltzaile guztiek abantaila eta hobekuntza handiak lortzen dituztela. Ez da beraz produktu itxia. Kazetaritzan etengabe sortzen dira behar berriak, eta komunikabideen eta erabiltzaileen beharren arabera egokitzen du Tokikomek plataforma. Plataformara batutako agerkari guztiek hiru hanka nagusi izaten dituzte, eta hala izango ditu *Barren.eus* webguneak ere: Aktualitateari dagokiona, Komunitatea edo herriko eragileen arteko komunikazio tresna, eta zerbitzuen atala, gurea moduko agerkari digitalei etekin ekonomikoa ateratzeko bidea emateko. Gaur egun, 28 hedabide daude Tokikomen plataforman, baina datorren astetik aurrera 31 izango gara; 31 hedabide, inbertsioak, ideiak eta estrategia partekatzen, euskarazko tokiko komunikabideen sarea etengabe berritzen joateko.

Euskaraz egiteari lotutako deserosotasunak gutxitzeko tailerra, Elgoibarren

Euskaraz ondo dakizu eta euskaraz ahalik eta gehien egin nahi duzu, baina nahi baino zailtasun gehiago dauzkazu horretarako? Ez kezkatu. Euskaraz egiteari lotutako deserosotasunak gutxitzeko tailerra antolatu baitute Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topaguneak eta Elgoibarko Udalak, Foru Aldundiaren laguntzarekin. EMUN kooperatibakoek emango dute tailerra, eta

10 ordukoa izango da (bost orduko bi saio). Urtarrilaren 8tik zabalik dago izena emateko epea, hilaren 18ra arte. Elgoibarko Izarran eman behar da izena, aurrez aurre edo telefonoz (943 741 626). Urtarrilaren 20an eta 27an izango dira bi saioak, Aita Agirre kulturgunean, 09:00etatik 14:00etara bitartean, eta gehienez 25 lagunentzako lekua izango da.

Aldakan taldearen kontzertua eta gehiago izango da Elgoibarren San Anton egunez



San Anton eguna da urtarrilaren 17a eta hainbat ekintza izango dira Elgoibarren jai-egun horretan. Hasteko, eta ohi legez, meza ospatuko dute San Bartolome parrokian, 11:00etan. EMUDAFE Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntzak Aldakan taldearen kontzertua ere antolatu du egun horretarako. Herriko Antzokian izango da, 12:30ean. Txato Martin (ahotsa, perkusioa), Marcio Padoan (gitarra), Pablo Ramos (saxoa), Elias Toledo (tronboia), Asier Sanchez (tronpeteta), Ibai Encina (bateria), Jimmy Bidaurreta (teklatura, synth bass) eta Sergio Lopez Landachek (congak)

osatzen dute taldea eta musika afrolatinoa egiten dute; Cumbia, Funk, Afrobeat, Chamame, Songo, Festejo, Plena eta Swing erritmoak.

Umeentzako eskaintza ere izango da San Anton egunez Elgoibarren. Batetik, Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan parkea izango dute (euria egingo balu, Sigmako aparkalekuan). Goizez, 11:30etik 14:00ak arte egongo da zabalik, eta arratsaldez, 16:30etik 19:30era. Bestalde, 17:30ean erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak kalejiran irtengo dira dultzaineroek lagunduta

Elgoibarko Lanbide Heziketa omenduko dute bihar, zapatua, Elgoibarren zabalduko duten seilu erakusketan



Bihar, hilak 13, zabalduko du Altxolatarren Dorretxeak urtean behingo seilu erakusketa, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 20ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, eta aurten, Elgoibarko Lanbide Heziketa omenduko dute. 125 urte bete ditu Lanbide Heziketak gurean eta motibo horrekin zigilu berezia ere aterako dute aurten. Erakusketa honako ordu-tegi honetan ikusi ahal izango da: astegunetan, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara goizez, eta arratsaldez, 18:30etik 20:30era.

Hilaren 20an, bihar zortzi, Filatelia Elkarteetako Euskal Federazioaren batzarra egingo da Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 11:00etan, eta ondoren, 13:00etan, zigilu erakusketa ixteko ekitaldia. Erakusketan parte hartu duten bildumazaleei eta laguntzaileei sariak emateko baliatuko dute ekitaldia. Kultur Etxeko sotoan izango da hori.

'Elgoibar, elkar zaintzen duen herria' da argazki lehiaketarako gaia

2025eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek, herrikoek zein kanpokoek, izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, beti ere 16 urtez gorakoak badira, eta aurtengo gaia honakoa izango da: *Elgoibar, elkar zaintzen duen herria*. Elgoibarren egindakoak izan beharko dira argazkiak, 2023ko urritik 2024ko urriaren 8ra bitartean eta euskara@elgoibar.eus posta elektronikora bidali beharko dira, 2024ko urriaren 8a baino lehen. Pertsonako sei argazki aurkeztu ahal izango dira gehienez. Informazio gehiagorako: elgoibar.eus.

Martxoaren 20an iritsiko da Elgoibarrera Korrika, eguerdian, eta Mendarora egingo du gero

A tzo argitaratu zuen AEK-k Korrikaren ibilbidea. Martxoaren 14an hasiko da euskararen aldeko ekimen erraldoia Irunen, eta martxoaren 24an bukatuko da Baionan, eta bidean, Euskal Herri osoa gurutzatuko du, alderik alde. Gurera, martxoaren 20an iritsiko da, Soroluzetik, 12:09ak aldera. Elgoibar gurutzatu ostean Mendarorako bidea hartuko du 23. Korrikak. Aurreikusitako ordutegiaren arabera, 12:55ak aldera jasoko dute mendaroarren lekukoa. Mendaron ere herri barrura sartuko da Korrika, eta eskuz esku ibiliko dute lekukoa, harik eta Sasiola inguruan debarrei utziko dieten arte. Debatik Mutrikura egingo du gero Korrikak, eta Lea-Artibai eskualdean barneratuko da gero.



23. ekitaldia du aurtengoa euskararen aldeko AEKren ekimen handiak eta *Harro herri du* leloa. Ohi den bezala, omendu bat ere izango da: Azterketak Euskaraz kolektiboa, Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak, hain justu ere. Herriar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dute Azterketak Euskaraz kolektibokoek, Frantziako Gobernuaren aginduen gaintetik eta beren emaitza akademikoetan izan dezaketen kaltea onartuta.

'Todas las hijas' antzerkia emango dute Elgoibarren urtarrilaren 19an

David Cañak idatzi eta Gemma Martinezek zuzendutako obra da *Todas las hijas*, eta urtarrilaren 19an Elgoibarren ikusteko aukera izango da, Herriko Antzokian, 19:00etan.

Beldurrezko lana da *Todas las hijas*, bost emakume ausartek beren bizitzari buruz egindako kontakizuna; emakumeen beldurretarako bidaia bat. Hizketan hasiko dira bost emakumeok, beharra dutelako. Beharra, dauden lekuraino iristeko egin duten bidea kontatzeko, eta beharra, beren bizitzak eta artea nola bizi izan dituzten adierazteko. Galdera bati erantzun nahi diote: "Zergatik sentitzen duten kezka bat beren bularraren barren-barrenean? Agian, mina da; edo beldurra, besterik ez; edo adina; edo bakardadea; edo maitasuna, batzuetan min ematen baitu; edo trebeska geratu den barre bat. Baina denak gogoratzen dira beren amaz, horregatik dira denak alabak". Emakume aske eta independente



izaten lagundu dieten bizitzako pasarteak kontatuko dituzte.

Kultura Sailak antolatu du antzerkia eta sarrerak herrikoantzokia.eus webgunean eskuratu ahalko dira aurrez, eta egunean bertan lehiatilan ere bai, gelditzen badira (18:15etik aurrera). 10 euro balio ditu sarrerak (3 euro, Gazte Txartela dutenentzat).

Finalerako azken txartelak, jokoan

Joan den barikuan jokatu zituzten San Anton Pilota Txapelketako lehen finalerdiak eta bariku honetan jokatuko dituzte bigarrenak. Emakumeen Lau t'erdiko txapelketako lehen finalerdiarekin hasi zen joan den barikuan San Anton pilota txapelketaren 31. ekitaldia. Lagunak Pilota Eskolakoek bigarrenagoz antolatu dute emakumeen kaiolako txapelketa, eta Leire Oskoz eta Goiuri Zabaleta lehiatu ziren lehen finalerdian. Belaunaldi berriak indarrean datozen erakusle dira bi pilotari gazte nafarrok. Zabaleta leitzarrak 14 urte besterik ez dituen arren, emakumeen pilotan gauza handiak egitera deitua dago. Emakume Master Cupeko final nagusian lehiatu zen joan den abenduaren 18an, Durangon, Amaia Aldairen aurka. Elgoibarren jokatuako finalerdian, Zabaletak 17 urteko Leire Oskoz pilotari nafarra izan zuen aurkari, eta 22-13 irabazi zion, finalerako txartela eskuratuz.

Promesa mailako gizonetzkoen lehen finalerdian, Ibarluzeak eta Cansecok osatutako bikoteak lortu zuen finalerako sailkatzea,

Urtarrilaren 15ean zabalduko dute Kilimon Trail mendi lasterketarako izena emateko epea

Apirilaren 6an jokatu dute Mendaron Kilimon Trail mendi lasterketaren 12. ekitaldia, eta urtarrilaren 15ean zabalduko dute izena emateko epea, 09:00etan. Antolatzaileek 250 dortsal eskainiko dituzte lasterketa luzerako (23 km.) eta 150 dortsal motzerako (11 km.). Iaz, ordu gutxiren buruan banatu zituzten luzerako dortsal guztiak.

Euskadiko Motoziklismo Federazioaren gala Elgoibarren egingo dute domekan

Euskadiko Motoziklismo Federazioak ohitura du sari banaketa gala urte hasieran egiteko, eta aurten Elgoibarko Herriko Antzokiak hartuko du ekitaldia. Domekan izango da, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta Elgoibarko Urnabitza taldekoen



Etxeberriari eta Santestebani 22-16 irabazita. Azkenik, gizonetzkoen nagusien mailan, Igoa eta Apezetxea gailendu ziren, Egigureni eta Cuaiarani 22-15 irabazita.

Bigarren finalerdiak, gaur

Gaur, 21:30etik aurrera jokatu dute bigarren finalerdiak Ikastolako frontoian. Emakumeen Lau t'erdiko txapelketako neurketan, Madalen Etxegaraik eta Leire Garaik jokatu dute elkarren aurka. Ondoren, promesetan, Apezetxeak eta Landak Irribarria eta Apeztegia izango dituzte aurkari. Azkenik, nagusien mailako finalerdian, Amianok eta Lozak Egigurenen eta Lazkozen aurka jokatu dute.



laguntzarekin antolatuko dute sari banaketa ekitaldia. 2023an jokatu dituzten Euskadiko Enduro, motokros eta trialeko txapelketetako irabazleei sariak banatuko dizkiete, eta euskal moto gidariek nazioartean lortu dituzten garaipenei dagozkien sariak ere bai.

LANA**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. Gauzez edo orduka egingo nuke lan. **631 212 497**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. **634 196 236**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez, ospitalean, etxeko langile moduan eta asteburuetan. **632 229 972**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka. **631 229 408**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gauzez, orduka, etxeko langile moduan... malgutasun handia. **602 490 595**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauzez edo etxeko langile moduan. **605 402 030**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean gauk pasatzeko prest, etxean, asteburuetan, etxeko langile moduan... malgutasun handia. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan ere bai. Etxeko lanak ere egiten ditut. Tituluak eta paperak dauzkat. **631 020 169**

Adinekoak zainduko nituzke. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia handia ditut. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. **614 114 360**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat, eta erreferentzia onak. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prestutasuna. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. **643 505 827**

Eskaintza

Batxilergoko matematika eta fisika eskola partikularrak ematen dituen norbaiten bila nabil. **688 636 212**

ETXEBIZITZAK

Bañareseko kanpinean mobilhome-a salgai: 9,20 x 3,70 metrokoa, itxitako portxe handiarekin (10 x 3,50m.) eta 30 m² lorategiarekin. 3 logela, bainugela, sukalde ekipatua eta egongela handia. **637 587 811**


Etxea alokairuan, Sigman. Bi logela, egongela eta sukaldea. Jantzita dago, eta dena kanpoaldera ematen du. Gas berogailua dauka. Lehenengo solairua. **686 246 662 / 630 671 584**

PARTIKULARRAK

Eskola partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest nago, arratsaldetan. Haur Hezkuntzako ikaslea naiz eta esperientzia daukat umeen aisialdian. Euskalduna. **618 722 998**

 <p>Consejo Vasco de Colaboradores de Administradores de España Euskalako Batza Administrazioaren Laguntza Erakundea</p>  <p>ROSA M^ª PINTADO</p> <p><i>Ettxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jabeen batzar baterako deialdia bidali berri digute, eta lehenetasun berezikiotzat jotzen dudan gai bat dago. Jakin nahi nuke behin deialdia jabe guztiei bidalita, beste punturen bat gehitu daitekeen gai-zerrendan.</p> <p>Jabeen Batzarrean aztertu nahi den gai bat deialdian sartzea ahaztuz gero, deialdiaren osagarri bat bidali daiteke, zuzenketa gisa. Deialdiaren zuzenketa jabeakide guztiei bidali behar zaie batzarren aurretik. Beraz, konpon daiteke, baina betiere jabeakideek batzarren aurretik jakiten badute zer gai landuko diren batzarrean. Irtenbide bera aplikatuko da jabeakideren batek aurrez eskatutako gairen bat lehendakariak ez badu gai ordenean sartu. Beraz, batzarreko deialdia egin ondoren etxejaberaren batek gai-zerrendan beste puntu bat gehitzea nahi badu eta lehendakariak onartzen badu, deialdia berriro bidali daiteke gai hori gehituta.</p> <p>Gomendioa. Legeak adierazten duena da ezin dela gai bat batzarrean aztertu, bilerara deitutako kideek ez badakite gai hori jorratuko zela, izan ere, jabeakideren batek jakin izan balu gai hori landuko zela bilerara joateko aukera izango luke. Beraz, irtenbidea litzateke jabeakideei berriz ere komunikazio bat bidaltzea, gai-zerrendako puntuak osatu direla jasota, lehendakariari ahaztu zaion gaia gehituta.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **388 655 658** bidalita.



Zorionak, **Noa**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxuak, familia guztiaren partez! Askok Maite zaitugu



Zorionak, **Intza**, bixar 6 urte egingo dituzu-ta!! Patxo haundi-haundi bat familixakuen partez.



Zorionak, **Lur**, astelehenean 7 urte egin zenituelako. Zu zara gure kanturik ederrena.



Zorionak, **Alex!** Domekan 2 urte potolo beteko dozuz! Etxeko guztiok ospatuko dogu zurekin. Patxo potolo bat, danon partez!.



Zorionak, **Aimar**, hilaren 14an zure eguna delako. Aita, ama eta Alexen partez, besarkada handi bat.



Zorionak, **Noa**, maittia! Askok asko maitte zaitugu!! Familiaren partez.



Gabonak pasatu dira eta urte berria hasteaz bat etorri da zure urtebetetzea. Astearteko partez, zorionak, **Ihintza**. Txokolatada noiz da? Muxu potolo bat.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



KONTSULTATEGIA

Eta zuzena al da hartzak eskuilatu beharrean kolutorioa erabiltzea?

Ahoa garbitzea hartzak eskuilatzearen osagarri bat da; inoiz ez ordeztu bat. Txantxarra saihesten eta gingibitisa geldiarazten laguntzen du, hala ere kontuz ibili behar da kolutorioaren batek hartzak tenkatu edo esmaltea higa baitfitzake.

Erabiltzekotan, hartzak ondo eskuilatu ondoren erabili behar da kolutorioa; gainera, ez da zertan egunero erabili behar den produktua izan behar. Batez ere kolutorio motaren eta pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera erabilerari begiratu behar zaio, batzuetan arriskuak ere izaten baititu.

Ahoa garbitzea edo kolutorioa erabiltzea metodo lagungarria da, hartzetako zeta edo hortzen artean sartzeko eskuilak edo interproximalak diren bezala. Horregatik, gomendagarria da ahoko higiea hobetzeko, baina betiere eskuilatzea ordeztu ez badu, txantxarrari aurre egiten, gingibitisa murrizten edo halitosi-arazoak hobetzen lagun dezakeelako.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

12 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

21:30 San Anton pilota txapelketa. Ikastolako frontoian.

13 ZAPATUA

09:00 Zuhaitz landaketa. Baso Biziak taldeak eta Lurguaia fundazioak antolatuta, Mintxetan batuko dira.

12:00 Zigilu erakusketa. Lanbide Heziketaren 125. urteurrenari eskainia. Altxolatarren Dorretxea filatelia elkarteak antolatuta, hilaren 20ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

14 DOMEKA

11:00 Motoziklismoaren gala. Euskadiko Motoziklismo Federazioak antolatuta, Herriko Antzokian.

16 MARTITZENA

16:00 Legegintzaldi planaren aurkezpena. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

18 EGUENA

18:30 Aurkezpena: Ahoztar Zelaietak 'La Ertzaintza que viene' liburua aurkeztuko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 BARIKUA

12:30 Antzerkia: 'Todas las hijas'. Erre Produksioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

21:30 San Anton pilota txapelketa. Ikastolako frontoian.

SAN ANTON EGUNA

Urtarrilak 17, eguaztena

11:00 Meza Nagusia, San Bartolome parrokian.

11:30 - 14:00 / 16:30 - 19:30 Umeentzako parkea Kalegoen plazan eta Aita Agirren. (Euria bada, Sigman).

12:30 Kontzertua: Aldakan. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian, doan.

17:30 Erraldoi eta buruhandiak zezenzikletekin, dultzaineroek lagunduta.



Maritxu Gabilondo Iriondo

2024ko urtarrilaren 5ean hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Natije Zulaika Basterra

2023ko urtarrilaren 13an hil zen, 79 urte zituela.

***Gure ondotik urrundu zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan ama.***



2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URTARRILA

12 BARIKUA	Garitaonandia
13 ZAPATUA	Arriola
14 DOMEKA	Arriola
15 ASTELEHENA	■ Fernandez
16 MARTITZENA	Yudego
17 EGUAZTENA	■ Oruesagasti
18 EGUENA	Barrenetxea
19 BARIKUA	■ Ibañez

2024 urte guztian, gaez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

Zinea Herriko Antzokian**'Anatomía de una caída'**

12, barikua: 19:00
13, zapatua: 19:00 / 22:15
14, domeka: 19:00
15, astelehena: 21:00

'Wonka'

14, domeka: 16:30

'Sabén aquell'

17, eguaztena: 19:00
20, zapatua: 19:00 / 22:15
21, domeka: 19:00
22, astelehena: 21:00



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162



Jon Aranao
Guillermo Torres
Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astlehenerik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbizitza daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

EXPRESS ESKAINTZAK!**LT-32VH3101 LED JVC TELEBISTA**

- HD Ready
- DOLBY Audio
- Smart Wifi
- USB Clonning
- Hotel modua
- 2 HDMI
- USB 1
- Google eta Alexa laguntzaileak

MILARBIREUbitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



MERKEALDIA
%35eko deskontua
eterako neguko ehungintzan!

Etorri, bisita gaitzazu!San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Jesus Aizpurua *Eskapaxo zena.*

Juan Mugertza krosa izan da notizia aste honetan Elgoibarren, eta aste honetako erretratu zaharrak ere Mugertza Krosean ateratakoak dira. Ondarrutik bidali dizkigu Ander Etxaburu Aizpuruak. Anderren senideak elgoibartarrak dira, *Eskapaxo* ezizenez ezaguna den familiakoak. Maria Luisa Aizpurua zen bere ama, jaiotzez azkoitiarra baina urte askoan Elgoibarren bizi izandakoa, eta bi neba zituen, Jose Mari eta Jesus, biak ere oso kirolzaleak. Argazki hauek Jesus zenak ateratakoak dira, 1961ean. Kirolzalea izateaz gain, argazkilaritzarako zaletasuna ere bazeukan Jesusek (2021ean hil zen), eta Mugertza Krosa izugarri gustatzen zitzaion. Garai hartan Lerunen eta San Pedro fabrikaren bueltan egiten zen krosa, eta han inguruan aterata daude argazki hauek. Mariano Haro atleta ezaguna ikusten da beheko aragazkian. Ander Etxaburuk kontatu digu askotan etorri izan direla Ondarrutik krosa ikustera, Deban trena hartuta, eta baita oinez ere, mendiz mendi.






I.URTEURRENA

Natividad Pradera Malaxecheverria

2023ko urtarrilaren 5ean hil zen, 96 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
zapatuan, urtarrilaren 13an, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

Zure irribarrea, betiko gure bihotzetan.

Etxekoak



I.URTEURRENA

Juan Jose Rey Carretero

2023ko urtarrilaren 10ean hil zen, 77 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak




VII. URTEURRENA

Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen.

***Denborak aurrera egin ahala
pentsatzen dugu askotan
izan zen hura, bizitakoa
ahazten dela benetan.
Ta nola adieraz genezake
bertso baten, bi hitzetan?
Neguko eguzki izpietan
zein lainorik beltzenetan,
sentitzen zaitugula hementxe
geure bihotz barrenetan.***

Erre Arte Kuadrilla



GREEN MI OEN GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
blenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€
hilera

12
aldiz urtean

4.885
die ostero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk
20870 ELGOIBAR